



DIIDAM BAYONNE

BAIONA HIRIAK ETA EUKLA HIRIGUNE ELKARGOAK AURKEZTEN DUTE

ZIGOR MALDA BIZI ERAKUSKETA IBILTARIA

2024ko MAIATZ. 3tik EKAIN. 16ra

Sartzea doan. Astartetik igandera 13:00 > 18:30 idekia, besta egunak barne



ZIGOR

MALDA BIZI

ERAKUSKETA IBILTARIA

2024ko MAIATZAREN 3tik EKAINAREN 16ra > DIDAM, BAIONA

2024ko UZTAILAREN 6tik URRIAREN 12ra > OSPITALEA, IRISARRI

2024ko AZAROAREN 8tik 2025eko URTARRILAREN 5era > AGERRIA, MAULE

« Bere zizelkaturiko lanen indar iradokitzaile eta espiritualagatik ezaguna, Zigor, euskal artista garaikidea, talentu handiko diseinatzaile, margolari eta argazkilaria da. Azken honi zuzendu zaio Euskal Hirigune Elkargoa lurraldean sekula ikusi ez den omenaldi artistiko bat proposatzeko: artistaren gai gogoenetako bati buruzko argazki erakusketa ibiltari baten esperientzia, malda. Xiberoko gainetatik gure lurretan ozeanoa inguatzen duten labarretaraino, nola bizi malda hori gizon eta artista zarenean? Hona hemen hiru aurpegiko erakusketa honen galderetako bat, zeinak ohorea eginen dien hurrenez hurren Didam, Baiona Hiriko arte garaikideko gunea, Irisarriko Ospitalea, Ondare Departamenduko Hezkuntza Zentroa eta Mauleko Agerria Etxaldeari. Baionak zuri-beltzeko irudi horien atea zabaltzen du. Irudi horiek mendiaren ikuspegi kontenplatibo bat marrazten duten bezainbat filosofatzen dute, non grisezko ñabardurakitzal eta argi jokoak elikatzeroa etortzen diren, non lerroak gurutzatzen diren, hankekin, espirituairekin eta arimarekin gora eta behera ibiltzeko paisaia bat osatzeko. Sar zaitetz olerkia eta irudiaren sakontasuna nahasten dituen sormen erkusketa honetara, Zigor duzu lagun! »

Jean-René Etchegaray

Baionako Auzapeza - Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakaria





Nere argazkietan, zuri-beltza iluna eta kontrastatua da, narrazioaren forma dramatiko horrek beti hunkitu nauelako. Zailtasunak ditut koloreak ezartzeko diren koloreen gainean. Zuri-beltzak koloreak ezkututzen duena erakusten digu. Koloreak berrezagutzeko parada ematen digu, eta zuri-beltzak, agian ezagutzeko aukera. Zigor





Erakusketa honen jatorrian, izen bereko obra bat: *Vivre la pente*, 2023an Cairn argitaletxean argitaratua. Euskal Herriko paisaia maldatsuak zuri-beltzean irudikatzen dituen argazki bilduma honetan, artistak Gizakiaren berezko dualtasunari aurre egiten dio: «Gizakiaren bizitzan bi malda daude, elkarri begira daudenak eta lautadara infinitura begira dauenak». (Zigor).

Euskal Hirigune Elkargoko ordezkaritza batek Zigorren tailerrera egindako bisita baten kariatara, erakusketa ibiltari proiektu baten ideia argia ikusten du. Artistaren lana lurralde osoan distiraraztea da kontua. Proiektuak erakusketa hartzeko lekuak bilatu behar ditu. Didam, arte garaikideko gunea, Lapurdiko Baionan udaberri honetan ibilaldia hasteko hautatua den bitartean, Irisarriko Ondare Hezkuntzako Departamenduko Zentroak Nafarroa Behererako harrera egiten dio udan, erakusketa urte hondarrean Xiberoko Maulen aurkeztu aitzin, Euskal Hirigune Elkargoaren jabetzako Agerria etxaldean. Gune bakoitzak eszenografia bat proposatzen du, eta beraz artistaren ikuspegi ezberdin bat nahiz eta osagarria izan. Zigorrek bere herriaren ikuspegi intimo eta kontenplatiboa ematen du. Bere jarrera filosofikoa bere argazkilari begiaren bidez adierazten da. Argiari buruzko lan jakintsu batek, zuri-beltzaren esplotazioaren bidez, irudiak irudikatzen dituen emozioak areagotzen ditu.

Olerkilariaren lumak argazkilariaren lana sublimatzen du. Euskal Herriko mendi-hegaletan ezinbestean isurtzen den uraren haria, paisaiari forma ematen diona, Zigorrek olerki bat irakurtzen digu, giza espirituaren bidea, batzuetan bihurria, aldatzen duena. Olerkilariaren hitzak argazkilariaren begia elikatzen du. Elkarrekin, erakusketa sentibera eta hunkigarria osatzen dute, non artistak bere burua eta Izadiaren botereari buruz dituen zalantza filosofikoak ematen baitizkigu. Hemen, artistaren diskurtsoak bokazio unibertsala du.



Didam-en 70 lan inguru aurkeztuak izanen dira, markoan ezarritako argazkiak, diapositibak eta ibilaldi monumentalak, bisitaria mendi-hegaletara edo itsaslabar ahaltsuen ertzera eramanez dutenak. Irudi horiekin batera, Zigorrek mendiko maila kontenplatiboetan sortutako marrazkiak, olerkiak eta testuak aurkeztuak izanen dira. Murgiltze bat, ez geografikoa, Euskal Herrian, elementu naturaletan eta norberaren bihotzean ainguratua bada ere. •

Gauean eta ezkerrean:
Zigor, 2018

Beherean eta ezkerrean:
Itsusi, 2020
© Zigor

Gauean eta eskuinean:
Baztan, 2022

Hemen gauean:
Zumaia, 2022
© Zigor

BIOGRAFIA

Kepa Akixo, ezizenez Zigor ezagutua, eskultore, argazkilari, margolari eta poeta da, 1947an Aretxabaletan (Gipuzkoa), Euskal Herrian sortua.

Bere poesia liburuxkak 1973an argitaratuak dira. 1982ra arte munduan zehar ibiltzen da aldizkari handienetarako eta Capa press agentziarako argazkilari gisa. Horrela bidaiatzen du, batez ere Saharako basamortuan, eta bizi-esperientzia horiek ehun amankomunak dituzte: lurra eta hizkuntza. Entzute sakon horrek eragina du haren begiradan eta klixeean, intuizioaren eta fulgurantziaren artean. Erreportari gisa aritu ondoren, Zigorrek ez du bere Leica hunkitzen hainbat urtez.

1983an eskulturan buru-belarri aritzea erabaki zuen eta berehala sartu zen eskultore garaikide handien ildoan. Zigorrek naturan du inspirazioa, antolatzen den kaos baten jatorrizko mugimendua berritzen baitu.

2010eko hamarkadan, kontenplazio tresna hori berriz eskutan hartzeko beharra sentitzen du, oraingo honetan osoki artistikoki hartua den xede batekin. Hemen, ez dago arreta galaraziko duen kolorerik. Erretratu eta paisaiak dira Zigorren argazki-lana, non beltzak eta zuriak testura poetikoa luzatzen duten.

Zigorrentzat, eskulturek, argazkiek, margoek eta olerkiek oihartzuna dute, eta sustraiek lotutako lur eta gizatasun baten ahalmen arkaiko eta unibertsala sentiarazten dute.

HATSAKIN...

ERAKUSKETAREN INGURUAN

Xehetasunak eta izen emateak:

05 59 46 63 43 / mediation.didam@bayonne.fr

OSTIRALA 05/03 > INAUGURAZIOA

18:00 > Zigorren eta Alexia Larrarte erakusketa-komisarioaren presentziarekin erakusketaren inaugurazioa.

Elkar liburu-dendak proposatutako liburu-salmenta.

LARUNBATAK 05/04 - 05/18- 06/01 & 06/15 > BISITAK FRANTSESEZ

16:00-17:30 > Zigorrek komentatutako frantseserazko bisitak.

Doan. Izena eman behar da.

LARUNBATAK 05/11 - 05/25 & 06/08 > BISITAK EUSKARAZ

16:00-17:30 > Zigorrek komentatutako euskaraz bisita gidatuak.

Doan. Izena eman behar da.

ASTELEHENA 05/13 > IDAZKETA TAILERRA

9:30-12:30 > Laurent Platero, *Encre(s)* aldizkarikoak animatua: ufaketa eta arnasketa, idazketan eta argazkian.

Izena eman behar da, toki mugatuak. Sartzea: 12 € / Senior: 10 € / Déclic txartela: 8 €

ASTEAZKENA 05/15 > TAILERRA FAMILIAN

10:00-12:00 > «Kolaketak zuri-beltzan»

Esperientzia artistiko-parte hartzaile batean, haurrek Larrun eta Hiru koroak birsortu beharko dituzte.

Bi metroko mural bat utziko zaie eskura, medium ezberdinekin. San Espirituko Le Cri de la Souris elkarteko Sophie Maisonneuve-Manterolak animaturik.

Izena eman behar da, toki mugatuak. 5 urtetik goiti.

Sartzea: 12 € /-Senior: 10 € / Déclic txartela: 8 € / -10 urte: 6€

OSTIRALA 05/17 > KONFERENTZIA

17:00-18:00 > Zigorrek elkarrizketa sutsu batera gomitatzen du Robert Larrandaburu, alpinista zuberotarra, mendiko laguntzailea, hiru 8.000 igo dituen, Everest barne, eta beste hainbat gailur.
Doan. Izena eman behar da.

LARUNBATA 05/18 > ERAKUSTOKIEN GAU EUROPEARRA

16:00-17:30 > Zigorrek komentatutako bisita.

Doan. Izena eman behar da.

18:30-21:00 > Erakusketa gaez irekitzea.

ASTEAZKENA 05/22 > ISTORIOEN KUTXA

11:00-12:00 > « Herensuge-ren aztarnetan »

Segi itzazu euskal mitologiako dragoi handiaren gorabeherak euskaraz kontatutako ibilbide batean, Zigor artistaren argazkien bidez.

Haur euskaldunentzat. 5 urtetik goiti. Doan, izena eman behar da.

LARUNBATA 05/25 > ESTANPEAREN BESTA

Manifestampek koordinaturik, gertakari honek grabatuaren eta estanparen praktika azpimarratzen du, funts historikoetatik hasi eta sorkuntza garaikideetaraino. Urtero, maiatzaren 26a inguruan proposatua da, 1660ko Donibane Lohizuneko edikua ospatzen den eguna, grabatua arte libre gisa hartzen duena. Euskal herrian, kultur eragile anitz ari dira proiektu horretan laguntzen animazioekin Labo Estampe eta Villa Madeleine, Bokalen, Station V, Baionan, Baionako Mediatekan, CIAP-an, Euskal eta Baionako historiaren Museoa, Kaxu arte zentroan eta Didam-ean.

13:00-16:00 > Arratsaldez ate irekiak serigrafiaren inguruan Claude Billès artista plastikoarekin.

Doan.

OSTEGUNAK 05/30 & 06/13 > BISITAK AGENTEENTZAT

12:00-13:00 > Zigorrek komentatutako frantseserazko bisitak.

Doan, izena eman behar da.

06/15 & 06/16 > HESTE ASTEBURUA

LARUNBATA 06/15 - 16:00-17:30 > Zigorrek komentatutako bisita.

Doan. Izena eman behar da.

IGANDEA 06/16 - 16:00 > Peio Erramouspe, jatorriz Sarako musikari multiinstrumentista, Didamera gomitatua da Erakustokietako Gau honetara. Giroko musika elektronikoak eta antzinako kantuen errepertorioak Zigor Museotako Gauen lanen oihartzuna dakar. Iraupena 45 min.

ZIGORREN MANERAN - « ZURE MENDIA MARGO EZAZU »

Mendiak bihotzean dituzu? Eman askatasuna zure irudimenari eta marraztu zure mendirik ederrena Didamentzat. Gure taldeek hautatutako marrazkiaren egileari « Vivir la pente » lanaren edizio bat oparituko zaio. Emaizta heste asteburuan.

Soporte numerikoa 12/06/2024 a aitzin mezu elektronikoz bidali behar da: mediation.didam@bayonne.fr gunera.

Proposamen horretan parte hartuz, Baiona Hiriko euskarri digitalean (webgune, Didam eta sare sozialak) eta Didamek erakusketa gunean zabaltzea baimentzen duen irudi eskubidearen baimena izenpetuko duzu.

BA OTE ZENEKIEN?

MAIATZAREN 29A > Didamek Baionako Harrera Eguneko onuradunak hartuko ditu, askatasun haize batek joko duen tailer batendako.

EKAINAREN 4A > 0-3 urteko haurrendako lehen haurtzaroko tailer bat proposatua izanen da, beraien ASMATek lagundurik. Motrizitate ibilbide bat paratua izanen da Didam-ean, helburua "maldaren jaustea" izanen delarik.

Herriko Lehen Haurtzaroko Zerbitzuarekin partaidetzan.

ESKOLAK, ESKOLAZ KANPOKO DENBORA ETA TALDEAK

Bisita komentatuak frantsesez eta proiektu bereziak Didam-en bitartekaritzak proposatuak. Almen osoak.

Edozein bisitarako, milesker zure eskola almena erreserbatzeagatik 05 59 46 63 43 telefonoan edo mailen bidez: mediation.didam@bayonne.fr



Hemen gainean:
Zuriza, (zehaztasun) 2022
© Zigor

DIDAM BAYONNE

6 QUAI DE LESSEPS – BAYONNE
LESSEPS KAIA, 6 – BAIONA

BAIONA HIRIKO ARTE GARAIKIDE ERAKUSKETA ESPARRUA

| XEHETASUNAK | BAIONAKO KULTURA ETA ONDAREAREN ZUZENDARITZA | 05 59 46 63 43
RENSEIGNEMENTS | DIRECTION DE LA CULTURE ET DU PATRIMOINE DE LA VILLE DE BAYONNE |

didam.bayonne.fr